

# Lurraren eremu magnetikoa ahultzen ikusi dute sateliteek

## Swarm misioaren lehen emaitzak aurkeztu ditu ESAk

“Swarm satelite-konstelazioak azken sei hilabeteotan lortu dituen datuen arabera, Lurraren eremu magnetikoa ahultzen ari da”. ESAk ekainean Kopenhagen egin zuen Kopenhagen egin zuen lan-bileratik ateratako titular nabarmenena izan da komunikabideetan, baina bestelakoren bat ere atera zitekeen, adibidez: “Lurraren eremu magnetikoa ahuldu egin da Mendebaldean; Indiako Ozeanoan, aldiz, indartu”. Eta hirugarren bat ere posible izan zitekeen: “Ipar Polo magnetikoa

Siberiarantz mugitzen ari da”.


Titular edo izenburu horien guztien atzean, Swarm misioaren hiru sateliteek, urtearen lehen sei hilabeteetan egindako azterketalana dago. Hiru sateliteak 2013ko azaroaren bukaera aldera jarri ziren Lurraren orbitan, bi 460 kilometroko altueran eta hirugarrena Lurretik 530 kilometroa. Hiru sateliteen helburua Lurra behatzea da, datu geomagnetikoak hartuz zehaztasun handiarekin. Eremu magnetikoa ikertu nahi dute, nola sortzen den

ikusi, nola aldatzen den, eguzki-haizeak nola eragiten dion aztertu, eta klimaren aldaketarekin duen harremana nolakoa den ulertu. Izan ere, Lurraren nukleotik magnetosferaraino hedatzen den eremu magnetikoa, eguzki-erradiazioetik eta erradiazio kosmikotik babesten gaitueenez, ezinbestekoa da biziarendako.

Kopenhagen bildu diren adituek adierazi dutenez, 5.000-10.000 urte arteko epean, alderantzikatzea gertatuko da Lurraren eremu magnetikoan. Ez da

lehen aldia izango gure planetaren historian; azken alderantzikatzea duela 780.000 urte gertatu zen.

Misioaren emaitzez, ESAko zientzialariek adierazi dute sateliteen lana bikaina izan dela, baina dituzten datuetan oinarrituta ondorio orokorrak ateratzeko oraindik goizegi dela. Izan ere, helburuak betetzen badira, hiru sateliteek lau urte egingo dituzte Lurraren orbitan. Ondorengo azterketetan Lurraren mantua, lurrazala, ozeanoak, ionosferea eta magnetosfera ere behatuko dituzte. ●



Lurreko eremu magnetikoaren aldaketak 2014ko urtarriletik ekainera, Swarm sateliteek neurtutakoaren arabera. Gorriak eremu magnetikoaren indartzea adierazten du; urdinak, ahultzea. ARG.: ESA/DTU SPACE.